

237. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO APIRILA


UZTARRIA

hurri

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

JULEN LANDA ETA ASIER GARMENDIA

ADIMENA ERRONKA



erreforma integralak

dica.



URRATEGI
INTERIORISMO
tomo diurnua

www.urrategiinteriorismo.com
Arrogeta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak



Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



UZTARRIA 237

2021EKO APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ALEX BERASATEGI



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Anartz Izagirre, *Lekukotasuna.*
- 6 **Hantxe bertan** Aloña San Sebastian, La Almunia de Doña Godinan bizi den azpeitiarra.
- 8 **Nire leihotik** Jon Olaizola, *Kristalezko kaiolan libre?*
- 10 **Iritzia** Luis Gurrutxaga, *Gizon baten nahigabea*; Txetxu Urbieta, *Aupa Lagun.*
- 12 **Elkarrizketa** Alazne Aizpitarate psikologian doktorea.
- 20 **Erreportajea** Adimen gaitasun handiko pertsonak.
- 24 **Bazkidetza eta lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Pedro Luengo margolaria.
- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Imanol Amiano, *Layren 50 itzal.*
- 34 **Erreportajea** Arrakala digitala.
- 39 **Iritzia** Olatx Aranguren, *25 urtera.*
- 40 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Burdinbidearen Euskal Museoa.
- 46 **Iritzia** Miel A. Elustondo, *Kapitan Laxa*; Aintzane Garmendia, *Emozioz zotinka!*

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea
Julene Frantzesena
Anartz Izagirre
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo
Diseinu arduraduna
Iñaki Martínez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Jon Olaizola

Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbieta
Itziar Aranguren
Nagore Aizbitarte
Olatx Alkorta
Imanol Amiano
Olatx Aranguren
Miel A. Elustondo

Aintzane Garmendia
Alex Berasategi
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua: SS-706/97
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belarrenda
dieta
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943 50 34 47 AZKOITIA
Urbilatu 9 bis 943 15 00 23 AZPEITIA



KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62



BOSCH Service
Car Service

AIZPURU
autoak

VREDESTEIN

Tel: 943-81 23 58 aizpuru@aizpuru.net Arretas 17, 20730 AZPEITIA
Fax: 943-81 22 81 www.aizpuru.net

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikargi@lanak@gmail.com www.ikahotemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Tuba
ehehularitza

Anakularitza
libela
lehorre
konizalea

Gestioi lanak

Finkan administrazioa
Gestio inobiliarria

Tel: 943 157 324 Faxa: 943 157 374
Ezpean saltea: 43 1. Ibaizabalzar/20730



bizi-pozez
BETERIKO BALKOI
ETA TERRAZAK



KIMUBAT
—GARDIA—

Urestilla bidea, AZPEITIA | 943 15 00 85 | www.kimubat.eus

Lekukotasuna



ANARTZ IZAGIRRE

Barru-barruraino iritsi zitzaidan Julen Telleriak Tolosaldeko Atarian *bullying*-ari buruz idatzitako iritzi artikulua. Iruditzen zait kalifikatu ezin daitekeen balioa duela eskola jazarpenaren inguruan norbaitek lehen pertsonan bere memoriak kontatzeak, eta halakoak entzunda, oharkabean denok jotzen dugu geure iruditegi propiora. *Bullying*-a bere azalean sentitu ez duenak ere ikusiko eta sentituko zituen bere ikastetxean, auzunean, eskola kirolean edo herriko plazan halako egoera bidegabeak, ez-leku gehiegi baitago inguruetan, baita Azpeitian ere.

Sarritan eraso fisikoei soilik erreparatzen diegu *bullying*-az ari garenean, larrienak horiek izan daitezkeelako, baina gai honen bueltan ere sakonera itzela duen iceberg bat dago, eta hain agerian ez dauden egoera horiek ere eragiten dute gaztetxo baten nortasunean, etorkizunean eta bizi kalitatean. Irain batek edo urte luzez itsatsita gelditzen zaizun goitzenak bizitza erabat konplikatuko diezazuke, bai. Eta denok izan gara halako kasuen lekuko.

Horra hor gaur egun amuarrainaren hezurak eztarrian baino gehiago molestatzen didan egoera: lekuko izan izana. Lagun batek behin esan zidan moduan, erasotzaile eta biktima zuzen diren askok biziraun egiten dute jazarpen egoera baten aurrean. *Touché*. Horixe da egoerarik erosoena une horretan zeure burua salbatzeko: "Isilik egongo naiz, badaezpada ere, hurrengoa ni izan ez nadin". Eta halaxe igarotzen da une horretan amaiezina dirudien nerabetasuna. Eta zenbat aldiz izan garen lekuko. Eta zenbat bidelagun izan ditugun gure lekukotasunaren lekuko.

Urteak azkar pasatzen dira, baina oso erraz gogoratzen ditugu gustuko ez ditugun une asko. Ematen du, urteak pasatu ahala, zu lekuko izan zaren egoera askoren eragileak aldatu egiten direla: "Asko aldatu da, e", esaten dizute. Eta, badirudi, erasotzaileek biktimari une hartan izan ez zioten errespetu hori bera merezi dutela hamar edo hogeitun urte beranduago, eta ia-ia eskertu eta guzti egin behar zaiela pertsona zibilizatu izateko pausoa eman dutelako, beranduegi bada ere. Izan ere, ematen du egun kirolari profesional, irakasle edo aita eredugarri denak jada ezin duela garai batean zuen erasotzailearen txapa paparrean eramanez, ezinezkoa dela, bidegabea.

Isiltasunak lekukoa erasotzailearen konplize bilakatzen du nolabait, eta neu ere izan naiz lekuko. Lekuko izateari utzi eta hamar urtera bizi eta iraun nahi zuen gaztetxo hari zezenari adarretatik eusteko esango nioke, nahikoa dela besarkada bat, begirada bat, edo jazarri duten pertsonari irribarre konplize bat egitea. Edo besterik gabe bera babestea, ezer ordainetan eskatu gabe, ez-leku gehiegi ditugulako inguruetan guk egoera are gehiago katramilatze beharrik gabe. Oharkabean denok pasatu gaitezke biktima izatetik lekuko izatera, edo lekuko izatetik erasotzaile izatera, eta batzuetan alferrik izaten da hamar urte beranduago bere garaian eman ez ziren besarkadak ematea. ■■■

**OHARKABEAN
DENOK PASATU
GAITEZKE BIKTIMA
IZATETIK LEKUKO
IZATERA**

Aloña San Sebastian: "Almunian ere ospatzen da San Sebastian eguna"

TESTUA: ANARTZ IZAGIRRE

ARGAZKIA: SANTIAGO CABELLO

30 urte baino gehiago daramatza Aloña San Sebastianek (Azpeitia, 1969) La Almunia de Doña Godinan (Zaragoza, Espainia) bizitzen. Han "gustura" bizi dela dioen arren, aitortu du tarteka-marteka Euskal Herrira bueltatzen dela "pilak kargatzera".

Nolatan bizi zara La Almunia de Doña Godinan?

COU amaitu eta unibertsitateko ikasketak egitera etorri nintzen hona. 18 urterekin heldu nintzen, eta ordutik hemen bizi naiz, gaur egun nire senarra dena hemen ezagutu bainuen. Ikasten ari nintzen garaian gehiago bueltatzen nintzen Azpeitira, baina orain hemen egiten dut bizitza; izan ere, senarrak eta biok esan genuen lana topatzen genuen lekuan jarriko ginela bizitzen.

Zertan egiten duzu lan?

Nire senarrak lorategien eta kirol instalazioen mantenuko enpresa bat du; besteak beste, futbol zelaien, golf zelaien eta lorategien mantenuaz arduratzen da. 2010. urtetik bertan egiten dut lan.

Nolakoa da La Almunia de Doña Godina?

Herri txikia da, 7.000 eta 8.000 bizanle artean ditu; beraz, Azpeitia baino txikiagoa da, nahiz eta eremu zabala duen herria izan. Eskualdeko hiriburua da Almunia, eta inguruko herri txikietako jende asko etortzen da enkarguak egitera. Etorri eta berehala egokitu nintzen ni Almunia, eta ez dut inoiz arazorik izan. Ondo hartu naute, eta ondo moldatu naiz guztiekin.

Zer berezitasun ditu inguru horrek?

Euskal Herriarekin alderatuta, oso leku desberdina da. Hemendik gertuen dauden mendilerroak Algairen eta Vicor dira; Azpeitia, berriz, mendiz inguratuta dago. Hemen zuhaitz txikiak, erromeroa eta fruta-arbolak daude; inguru lehorra da, baina baditu Euskal Herriak ez dituen hainbat berezitasun ere.

Horiez gain, zer beste desberdintasun topatu dituzu Almunia eta Euskal Herriaren artean?

Etorri nintzenean orain baino txikiagoa zen Almunia. Inpresioa egin zidan hemen etxe guztiak txikiak zirela ikusteak, eta kaleak zein herriaren forma bera ere oso desberdinak dira Azpeitiarekin alderatuta. Udaberrian, fruta-arbolak lorez betetzen direnean, oso itxura polita hartzen du inguruak. Bestalde, bada Azpeitiak eta Almuniak komunean duten zerbeit; izan ere, hemen ere ospatzen da San Sebastian eguna. Ez da danborradarik egiten, baina festa egun horretan jai izaten dugu behintzat [barrez].

Koronabirusa heldu da hara ere. Zer-nolako eragina izan du zuen egunerokotasunean?

Guri laneko jardunean asko eragin digu izurriteak. Izan ere, Espainia osoan egiten dugu lan, eta asko mugitu behar izaten dugu batetik bestera. Orain, Andaluzian ari gara lanean, eta han lo egiteko zein jateko lekua behar dituzte langileek. Azken hilabeteetan oso murriztuta egon da hori guztia, eta hotelen partez, apartamentuak topatu behar izan ditugu langileentzat. Mugikortasun mugek eragin handia izan dute gudan.

Askotan bueltatzen al zara Azpeitira?

Normalean, oporrak ditugun aldiro itzultzen gara, baina joan zen urtean ezin izan genuen horra joan Gabonetan. Irailean izan nuen joateko aukera bakarra. Hala eta guztiz ere, udan, Aste Santuan eta beste hainbatetan ere bueltatu ohi gara herrira.

Azpeitiko zeren falta sumatzen duzu?

Familiarena eta lagunena. Horrez gain, horra joaten naizenean, Azpeitira ez ezik, Ataunera [Gipuzkoa] ere joaten gara, nire ama hangoa baita; gainera, nire ahizpa han bizi da. Lizarrustitik igarotzen naizenean eta inguru berdea ikusten hasten naizenean, pilak kargatzen zaizkit.

Eta sorterriko albisteen berririk izaten al duzu?

Bai, noski. Azpeitira joaten naizen aldiro, ahal dudan guztietan lagunekin gelditzen ahalegintzen naiz, eta hango kontuak kontatzen dizkirate. ■



Kristalezko kaiolan libre?



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Udaberriak dakartzan loreen gerizpean, txio hotsen melodiapean, ezkutatu aurreko azken eguzki izpien beroan biluzten ditut arima eta pentsamenduak sarritan.

Nostalgiaz gogoratzen ditudan betiko tokietan, jada geroz eta urriago diren toki horietan. Inongo distrakziorik gabe, zarata guztietatik at, naturarekin bat.

Txantxangorrien kantu alaiak buklean jarrita naturako erreproduktorean, gustuko liburu bat eta ipar haize freskoaren konpainian, gora begira etzanda aurkitzen naiz maiz, ohiko pentsamenduei behin eta berriro erreparatuz.

Airearekin bat hegan doazen bular laranjadunak begiratzeko, askatasunaren utopia sentitzen, txotxongiloen hariak ikusten...

Kristalezko kaiolan libre? ■■■





Gizon baten nahigabea

Otsaileko idatzian gizartean ditugun ohiturez aritu nintzen. Han nioen batzuk galdu egin ditugula, eta beste batzuk etorri edo ekarri egin dizkigutela, sasi asmoekin. Lagun batekin topo egin nuen –bera goierritar azpeitiartua bezala definitzen da–, eta luze aritu ginen ohiturez eta giza harremanez. Bizitza guztian irakaskuntzan eta kultura munduan aritua da gizona, pentsamendu zabalekoa, baina, era berean, pentsamendu sakonekoa eta zorrotzekoa. Batzuetan aho zabalik uzten zaituen horietakoa: zein filosoforen lerrotan kokatzen haiz hi, Parmenidesenean ala Heraklitorenean? Arraioa! Baina goazen harira. Biok genioen giza harremanak gauzatzeko moduak aldatu direla, eta

supituki istorio bitxi eta esanguratsua kontatu zidan: "Gizon baten nahigabea. 1986 eta 1996 bitartean, asteko lana bukatuta, ostiral arratsean trenean egiten nian bidaia Bilbotik Elgoibarrera. Trenean lagun egin nian 60 urteko durangar aurrejubilatua berria. Solasa ez genian falta izaten Durango eta Elgoibar bitartean. Jubilatua txartela medio, merke egiten zian ibilbide hura astean bizpahiru aldiz, bere buruaren eta treneko ingurukoaren entretenigarri, tertuliano berriak

**INBOLUZIO
INDIBUALISTA ETA
NARTZISISTAREN
BOLADAN BILDUTA
ZAGOK MUNDUA**

eginez. Bueltako tren hartu behar zuen herriko jubilatuetan berriketa ederrean kafetxo bat hartu eta berriz etxerako bidea hartzen zian. Treneko triki-traka hartan elkarren eta ingurukoaren berri ondo jakiten genian; egunkariaren komentarioa ere ez huan falta izaten. Noiz edo noiz albokoren bat ere gehitzen zitzaiguan hizketara. Orduei zuku gozoa ateratzeko bide aproposa. Gizon hark eguneko gozamenik handiena treneko joan-etorrietan bizitzen zian: besteekin hitz egiten, mundua konponduz edo norbere psikea lasaituz. Nik, gero, urteetako etenaldia egin nian tren ibilbide hartan. Hala ere, 2010ean edo, gizon harekin topo egin nian berriro. Atsekabetuta bilatu nian, goibel. Ez hainbeste zahartzearen poderioz, baizik eta komunikatzeko inor topatu

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Aupa Lagun

Psikologo batek behin esan zidan: sartu zure barruan, jo atzera eta aurpegia alaitzen dizuten irudiak aurkitzen ahalegindu zaitez. Ez izan presarik. Bila eta bila aritu ondoren, irudi errepikakorrek. Gizaki sinple eta arrunta izaki, futboleko baloi borobilak alaitzen zuen nire existentzia lurterra. Atxuia, estrata, Betharrak, Zubiola nahiz Garmendipen baloiak egiten ninduen zoriontsu. Eta nire jainkoak Garmendipeko soropileko printzeak ziren. Hasi Atxuia, Lakasa eta konpainiarekin, eta Porruerekin, Peñarekin eta Jaimerekin amaitu. Tartean, zientoka idolo, kamiseta zuriarekin eta praka urdinekin. Lagun Onak zen nire etxea, nire familia; Reala bihotza urratzen zidan gustuko maitea. Gaztea bezain inozoa.

Iturbide, Amu eta abarren xapoentzat une zailak dira. Saikapeneko infernuko sugarretatik ihes egin ezinean. Zauden mailan zaudela, maila galtzeko beldurra mingarria da, oso mingarria. Une zailetan, animoak sufritzen ari zareten guztiontzat. Jaitsi ala ez, Lagun Onak bizirik dago, oso bizirik. Igande goizeko neska-mutulen irribarrea ikusi besterik ez dago. Sufritu bai, baina futbolak ez gaitzala inoiz tristetu. Baloia eta irribarrea anai-arrebak orain eta beti. Aupa Lagun. ■

ezinagatik. 'Inor ez dago hitz bat trukatzeko prest, beren segapotoari itsatsita daude denak, ez naiz inor hemen, uztera noa treneko joan-etorri hauek'. Horiek izan ziren hari entzun nizkioan azken hitzak".

-Garbi zagok giza harremanak aldatzen ari garela, ez?

Niretzat, bai. Inboluzio indibidualista eta nartzisistaren boladan bilduta zagok mundua, batik bat mendebalder zibilizazio deritzoguna. Eta bolada nartzisista hau, noiz arte? Maiteminduen maitemina ere ez duk betiko izaten. Irauntza teknologiko honetara ere ohituko dituk belaunaldi berriak, eta makina berriek sortutako txoroaldia apaltzen joango duk, giza harremanak beste modu batez integratuz.

-Esan nahi duk jada ez garela sozialak?

Ez, ez diat hori esaten. Sozialak izateari ez zagok lagatzerik. Bakartasunetik besteenera zuzendu beharra sentitzen dik gizakiak, besteak kalamidadeak badira ere.

-Makina bat kontu ikasiko huen harengandik?

Kontuak baino gehiago, batekin eta bestearekin egotearen aldarre zoragarri hori, gaur bitxoaren presentziarekin, ondo faltan sentitzen duguna. Beno, kontuak ere bai. Haren kontaketatik ohartu ninduan Azpeitia eta Durango antzekoak direla hainbat aldetan, adibidez biek nahi dutela agertu, handi izatean, Donostiaren edo Bilboren gainetik.

Estimatzekoak izan dituk hire narrazio eta hire ekarpen interesgarriak, azpeitiartutako goierritar adiskide. ■



"Kolpe bat, oro har, ez da egun batetik bestera etortzen"

ALAZNE AIZPITARTE PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea, bikote terapeuta, ikertzailea eta irakaslea da Alazne Aizpitarte. Bikote harremanak, indarkeria eta nerabezaroa dira haren espezialitatea, eta arlo horietan dihardu lanean. Gaur egun, Bartzelonan bizi da.

Testua: **Nagore Aizbitarte**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Gaztetatik oso garbi zuen Alazne Aizpitartek (Azpeitia, 1984) psikologoa eta terapeuta izan nahi zuela. 2014an *Indarkeria nerabeen bikote harremanetan* izeneko doktore tesia argitaratu zuen, eta espezializazio horren bidea jarraitu du gerora.

Atzerrian ere ibili da ikerketa lanetan. Gaur egun, Bartzelonako Sant Joan de Deu ospitaleko Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentro batean lan egiten du. Ikertzaile lanetan ere badabil Kataluniako Oberta Unibertsitatean. Nerabeek bikote harremanetan garatzen duten indarkeriaren inguruan hausnartu du, baita jarrera horien atzean dauden faktoreez ere.

Psikologian doktorea, bikote terapeuta, ikertzailea, irakaslea... Ibilbide profesional luzea duzu, baina nola sartu zinen psikologiaren munduan?

Psikologiaren munduak betidanik erakarri nau. Lagunek arazoren bat zutenean, nigana jotzen zuten gehienetan. Bikote harremanen gaia nerabezaro hasieratik bilakatu zen erakargarria niretzat. Oso garbi nuen psikologoa izatea nahi nuela ondoren terapeuta izateko; ez nuen zalantzarik izan.

Ameriketako Estatu Batuetan ibili zinen bi urte inguruz ikerketa lanetan. Nola sortu zen aukera hori?

Doktoretza amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak ateratzen dituen deialdi batzuetan lehiatzeko

aukera izan nuen. Doktoretza ondorengo ikerketa proiektu bat aurrera eramateko aukera ematen dizute deialdi horren bidez, hiru urtez finantzaturik; bi urte atzerrian egin ohi dira, eta beste urte bat hemen. Nire kasuan, Ameriketako Estatu Batuetara joatea erabaki nuen. Deialdi horien helburua da hemengo ikertzaileek kalitate eta ezagutza maila altuenak berenganatzea, ondoren ezagutza horiek norbere komunitateari bueltatzeko.

Esperientzia ona izan al zen?

Oso ona. Kultura ezberdin bat ezagutzeko aukera izan nuen eta asko bidaiatu nuen; oso aberasgarria da hori. Lanari dagokionez, berriz, han sentitu nuen nire jarduna oso ondo baloratuta zegoela. Doktorea eta ikertzailea izateagatik estatus bat jasotzen duzu han, eta hori beste leku batzuetan ez da horrela izaten. Niretzat oso polita izan zen hori sentitzea.

Gaur egun, Bartzelonan egiten duzu lan. Zer dela eta?

Espezializazioak ekarri nau Bartzelonara. Espainia osoan espezializazio gehien dagoen lekua da Bartzelona. Orain, Sant Joan de Deu ospitalean lan egiten dut, programa espezializatu batean. Nire ibilbidean zehar nerabezaroaren gaian espezializatu naiz, eta indarkeriaren lekuko diren hurrekin eta nerabeekin lan egiten dut. Familia barruan gauzatzen den indarkeriaren biktima diren hurrek eta nerabeek probabilitate handiagoa dute harreman toxikoak izateko, eta ildo hori jorratzen ari gara. Esku artean dugun programa aitzindaria





Eusko Jaurlaritzak antolatutako ikastaro batean, Donostian.



EHUK antolatutako Udako Ikastaroetan, iaz.

da Espainian, eta alderdi kliniko eta ikertzailetik oso interesgarria da hori niretzat.

Nerabeen bikote harremanetan gauzatzen den genero indarkeria da zure espezializazioa. 2014an *Indarkeria nerabeen bikote harremanetan* izeneko doktore tesia argitaratu zenuen. Zergatik nerabeak eta horien bikote harremanak?

Bikote harremanen gaia oso mundu konplexua da. Nerabezaroko bikote harremanak errusiar mendi bat izan ohi dira, eta nerabezaroa bera ere hala da.

Nerabezaroaren eta bikote harremanen artean sortzen den nahasketa hori liluragarria da niretzat. Nerabeak identitate pertsonalaren bila aritzen dira helduarorako trantsizio horretan, eta hainbat zalantzarekin, espektatibarekin eta eskemarekin hasten dute harreman erromantikoen ibilbidea. Bikote harremanak nolakoak diren esploratzen hasten dira sasoi horretan, eta oso mundu konplexua da ulertzeko. Nerabezaroaren gaia ezin da sinplifikatu komunikabide batzuek egiten duten moduan. Adin tarte horretan, izugarritzko elastikotasuna izan ohi dute gazteek, eta aldaketen aurrean oso sentikorrak izan ohi dira. Horregatik, etapa hori gakoa da prebentziorako. Alde horretatik hutsune handia ikusten nuenez, alor horretan espezializatu nintzen.

Indarkeria askotan biolentzia fisikoarekin lotzen dugu. Indarkeria mota hori, ordea, icebergaren punta da, ezta?

Kolpe bat, oro har, ez da egun batetik bestera etortzen. Indarkeria fisikoa azaltzen denean, normalena da lehenagotik beste indarkeria mota batzuk gauzatu izana, adibidez, psikologikoa. Gehienak gradualki eboluzionatzen doazen kasuak izan ohi dira. Harreman batzuk, agian, ez dira inoiz helduko indarkeria fisikora, baina oso erlazio toxikoak eta kontrolatzaileak izango dira. Beraz, alerta egoera handiagoa egon ohi da lehenagotik indarkeria agertzen denean.

2019an hiru gaztetik batek uste zuten "saihetsezina" edo "onargarria" zela egoera batzuetan bikotekidea "kontrolatzea". Zergatik onartzen dira kontrol jokabide horiek?

Gaur egungo nerabezaroa ez da gure aitona-amonek bizi izan zuten bera. Ziurgabetasun eta espektatiba ezberdinak daude gaur egun bikote harremanen inguruan. Lehen, oso markatuta zeuden jarraitu beharreko pausoak, eta horrek segurtasuna ematen du psikologikoki. Oraingo harremanak, ordea, oso labainkorrek dira, eta jendeak espero du ezkondu baino lehenago beste hainbat pertsonarekin harremanak edukitzea. Modu oso suttsuan maiteminduta dagoen pertsona batek ikusten du oso erraza izan daitekeela ondoan duena galtzea, eta izugarritzko ahaleginak egiten dituzte pertsona hori beraien alboan mantentzeko. Saiakera horretan, batzuetan kontrol jokabide horiek agertzen dira. Azken batean, kulturalki eta komunikabideetatik jasotako mezuek ulertarazten dutena da jelskortasunari bidea uztea normala dela. Beraz, gazteek ez dute sentitzen landu beharreko emozio bat denik. Horrela, kontrol egoerei lekua eta babesa ematen zaie.



Benidormen oporretan, 8-9 urterekin.

"NERABEAK SENTIKORRAK DIRA ALDAKETEN AURREAN, ETA ETAPA HORI GAKOA DA PREBENTZIORAKO"

"LEHEN, OSO MARKATUTA ZEUDEN PAUSOAK, ETA EGUN, HARREMANAK OSO LABAINKORRAK DIRA"

"GAUR EGUNGO GAZTEAK EZ DIRA LEHENGOAK BAINO MATXISTAGOAK, BAINA EZ DAKITE ERLAZIONATZEN"

Sare sozialen erabilpenari botatzen zaio errua askotan. Zure ustez, sare sozialek normalizazio horretan lagundu dute?

Sare sozialak ez dira kontrol jokaeren kausa edo jatorria; kontrolatzea errazago bihurtzen duten erremintak dira. Asoziazio kate hau gauzatzen da: kontrola errazagoa den heinean, kontrolaren maiztasuna igo egiten da, eta, ondorioz, kontrola normalagoa bihurtzen da. Beraz, esan daiteke normalizazioan eragiten dutela nolabait. Hala ere, faktore indibidualek ere eragina dute kontrol horretan: autoestimua, segurtasun eza... Faktore horien arabera, gazte batzuek joera handiagoa izango dute sare sozialen bidez kontrolatzeko.

Maitasuna kontrolarekin nahasten al dute?

Zeharkako kontrolarekin bereziki. Kontrol mota hori identifikatzea zailagoa da. Ez da gauza bera zure bikotekideak esatea ez duela nahi zu lagunekin ateratzea, edo esatea asko maite zaituelako asteburu osoa zurekin bakarrik igaro nahi duela. Bigarren eskakizuna maitasunarekin gehiago nahas daiteke, baina jokabidearen helburua lehenengoaren oso antzekoa da. Kontrola maiztasun handiz modu zuzenean gauzatzen hasten bada, ordea, urduritasuna edo antsietatea hasi edo areagotu daitezke. Hala ere, horrek ez du esan nahi guztiz ohartzen direnik gaizki dagoen jokabidea dela.

Jeloskortasuna asko aipatzen da maitasunaz hitz egitean. Zer da zuretzat jeloskorra izatea? Eta zeren ondorio da?

Maite dugun pertsona baten galera erreala edo irudikatutakoa aurreikusten dugunean sentitzen dugun emozio bat da. Faktore indibidualekin oso lotuta dago, eta norberaren segurtasun ezak eragin zuzena du. Autoestimua eta dependentzia emozional arazoak dituzten pertsonen errazago eta modu bortitzagoan aktibatuko dute emozio hori. Gizarteak eta kulturak ere paper garrantzitsua dute jeloskortasun jokaera horien interpretazioan, justifikazioan eta normalizazioan.

Pasioa gatazkarekin lotzen dutela aipatu izan duzu. Zer-nolako garrantzia ematen zaio gaur egun pasioari nerabeen arteko harremanetan? Nola ulertzen dute pasioa?

Garrantzi handia ematen zaio pasioari. Pasiorik ez badago, iruditzen zaie ez dagoela harreman batean egon behar duen "zera" hori. Kontua da askotan gatazkarekin lotuta egon ohi dela komunikabideek erakusten diguten pasio mota. Gatazkaren eta pasioaren arteko lotura egiten denez, gatazka onartzeko gai izan ohi dira



Kalifornian postdoktoradutza ikasten ari zela egindako bidaietako irudiak.

gazteak, pasioaren alde. Lotura hori egitea oso arriskutsua da, eta pena ematen dit pasioa gatazkarekin lotzeko joera horrek; izan ere, pasioa oso gauza polita da berez.

Ereduen garrantzia ere aipatu izan duzu. Telebistan eta sare sozialetan ikusten dituzten harremanen bitartez, nerabeak “entrenatu” egiten direla esan izan duzu. Ikusten dutenak zertan entrenatzen ditu gazteak?

Nerabezaroren hasierako harremanak entrenaleku bat direla esaten dut nik. Boxeoko ring batean aurkitu ohi dira gazteak, eta ahal dutena egiten dute dakiten horrekin. Hezkuntzari dagokionez, oso gutxi egiten ari gara halako gaiak lantzeko, eta horrek zuzenean eragiten du nerabezaroko harremanetan. Nire ustez, indarkeria murriztean jarri dute fokua orain arte. Faktore soziokulturalak lantzea garrantzitsua da berdintasuna lortzeko, baina badirudi jendeak pentsatzen duela berdintasuna lortzen dugun unean gazteek jada ez dutela indarkeria erabiliko. Hori ez da gertatuko beste faktore asko landu gabe uzten baditugu. Faktore indibidualek garrantzia dute, bai eta bestelakoek ere: lagunen eragina, familiaren barruan bizitzen dutena, bikotekideekin zer-nolako dinamikak sortzen dituzten, komunitateak dituen arauak... Pixka bat

alboratuta geratzen diren faktore horiek garrantzitsuak dira; izan ere, pertsona bat biktima edo erasotzaile izateko probabilitatea areagotzen dute. Arazoa hor ikusten dut nik.

Feminismoak egindako lanari esker, gazteek gero eta informazio gehiago dute indarkeriaren inguruan.

Horrek eragina izan al du haien bikote harremanetan? Eredu aldaketa bat gauzatzen ari dela uste al duzu?

Uste dut ari dela gauzatzen eredu aldaketa bat.

Egungo gazteen artean oraindik badago matxismoa, baina ez da matxismo tradizionala bezain agerikoa. Horren atzean mugimendu feministak egindako lanak handia dago. Gaur egungo gazteak ez dira lehengoak baino matxistagoak, baina ez dakite nola erlazionatu, eta jasotako eredu batzuek harreman toxikoetara eramaten dituzte. Uste dut alor horretan ez dugula arreta handirik jarri.

Nola antzeman dezake gazte baten inguruneak hura indarkeria bizitzen ari dela bere bikote harremanean?

Ohiko seinalea izaten da gaztea isolatzen hastea. Agian, isilago edo lotsatiago dagoela nabaritu dute ingurukoek, edo gustuko zuen jarduera bat jada ez duela egiten ikusiko dute. Kontrol eta isolamendu egoera batean nabari daitezkeen jarrerak izan daitezke horiek. Egia da beste arazo



Doktorego tesiaren azken urtean, 2013an, European Conference on Psychological Assessmenteko ponente funtzioan.

batzuekin ere izan dezaketela zerikusia seinale horiek, baina asko ezagutzen dugun pertsona bat asko aldatzen ari dela nabaritzen badugu, seinaleei arreta berezia jarri behar zaie.

Eta nola lagundu?

Orokorrean, lagunak izan ohi dira aurrena lagundu dezaketena, gurasoek baino lehenago. Ikerketek erakutsi dute gurasoengana jotzea ezohikoagoa dela; izan ere, gazteek pentsatzen dute ez dituztela ulertuko edo kontuan hartuko eta beldurra sartzen zaie. Gauzak horrela, zentzuzkoena da biktimarekin hitz egitea, kezka adieraziz gerturatuta. Ezin zaio leporatu aldatzen ari dela edo ez dela horrenbeste ateratzen lagunekin, mezu horiek errudun sentiarazi dezaketelako. Biktima epaitua sentitzen bada, oso zaila izango da berarentzat gertatzen zaiona kontatzea. Beraz, lehenengo kezka, eta gero eskuragarritasuna erakustea da bidea; hau da, edozein egoeraren aurrean berari laguntzeko prest egongo zarela adieraztea. Izan ere, oso zaila da isolamendutik bakarrik ateratzea.


Gazteen bikote harremanetan gertatu ohi dena aztertu duzu zure ibilbidean batez ere. Baina zer-nolako bikote harremanak izan ohi dituzte helduek? Ezberdintasun asko al daude?

Helduekin bikote terapia egiten dut, eta uste dut dinamika antzekoak errepikatzen direla hainbat kasutan. Dena den, bizitzako etapari dagokionez, erlaxatuago egon ohi dira pertsonak helduaroan, nerabeekin alderatuta. Jeloskortasuna eta kontrol egoerak noski agertu ohi direla, baina ez dira nerabezaroan bezala azaleratzen. Esperientziak eta ezagutzak asko laguntzen dute. Bestalde, beste zenbait ardurak izan ohi dituzte helduek; adibidez, umeen zaintza. Kasu horietan, pixka bat sakabanatu egiten da bikotea, eta beste bikote dinamika batzuk garatzen dira.

Etorkizunari begira, egoera aldatuko dela uste al duzu? Ondo maitatzen ikasiko dugu?

Hori pentsatu nahi dut. Hala ere, inbertsio handia egin beharko da prebentzioan. Adibidez gisa jar dezaket Kanadan garatzen ari diren prebentzio programa bat. Programa horren bidez, gaitasun sozio-emozionalak irakasten zaizkie gazteei urte oso batean zehar. Esku hartzearen amaieran, ikusi dute bikote harremanetako indarkeria eta *bullying* jokaerak murriztu egiten direla. Beraz, uste dut egiaztatuta dauden egitasmoetan inbertitzea dela etorkizuna, funtzionatzen duela dakigun horretan, hain zuzen. ■■■

Adimenaren aurpegiak



Adimen gaitasun handia duten haurrak izan dira eta badira Azpeitian ere. Pertsona horiek hainbat erraztasun izan ohi dituzte ikasteko garaian, baina kontrapuntu batzuk ere izan ditzake dohain hori izateak. Gaitasuna garaiz atzematea da gakoa.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Alex Berasategi**.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, ikasleen %3 inguruk daukate adimen gaitasun handia. Eusko Jaurilaritzaren datuen arabera, berriz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen %0,2k dute adimen gaitasun handia diagnostikatuta. Baina zer da adimen gaitasun handia izatea?

Asier Garmendiak (Azpeitia, 1996) eta Julen Landak (Azpeitia, 2011) adimen gaitasun handia dute diagnostikatuta, eta biek ala biek bat egin dute galdera horri erantzuterakoan. Landak hala azaldu du zer den adimen gaitasun handia izatea: “Eskolan zerbait azaltzen dutenean, batzuek azalpena bizpahiru aldiz ematea behar izaten dute, baina guk askotan lehenengoan ulertzen dugu. Gauza asko azkarrago ere egiten ditugu. Fisikoki ez naiz azkarra, baina adimenez bai”, azaldu du. Garmendiak bat egin du haren esanarekin. “Gauzak eta kontzeptu berriak ulertzeko gaitasuna izatea, gauzak erraz barneratzekoa, kalkuluak egitea gutxi kostatzea... hori da adimen handia izatea”.

Garmendia Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa gradu bikoitza bukatu eta Sistema Txertatuen Ingeniaritza masterra ari da gauzatzen; Landa, berriz, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikaslea da. Adimen gaitasun handia izateak batu ditu biak; izan ere, Uztariak erreportaje honetarako elkartzeko ezagutzen zuten elkar. “Julen ikusi genuen telebistan, eta amak esan zidan txikitan antzeko kasua bizi izan genuela guk ere. Julenekin harremanetan jartzea erabaki genuen”, azaldu du Garmendiak. Julenen ama da Hegoa Larzabal (Azkoitia, 1980), eta hark adierazi duenez, Garmendiarekin elkartean “asko lasaitu” zen semea. “Txikitan adimen handia izanik zertara irits daitekeen ikusteak lasaitu egin zuen Julen”.

Munduko Osasun Erakundeak modu honetan definitzen du adimen gaitasun handia: “Kozientea 130 baino handiagoa izatea”. Dena den, hori zalantzan jartzen dute hainbat adituk, eta gaitasun handiko haurrak identifikatzeko beste proba batzuk egitea nahiz gaian adituak diren psikologo klinikoengana jotzea aholkatzen dute. Hala egin zuen Landaren familiak, haren amak azaldu duenez: “Konfinameduaren aurretik psikologo kliniko batengana jo genuen, eta hark WISC proba egin zion (Juleni); ariketa pila bat egin behar izan zituen, hiru bat ordu eman zituen probak egiten. Emaizaren arabera, koziente altua du Julenek”.

Garmendiari 10 bat urterekin diagnostikatu zioten adimen gaitasun handia. Halako haurren kasuetan aditua zen psikologo baten laguntza jaso zuen, eta baliagarria izan zitzaioala azaldu du. “Akademikoki gertatzen zitzaidana bideratzeko jaso nuen laguntza, batez ere, motibazioa ez galtzeko. Izan ere, eskolan erraztasunez moldatzen diren ume askok motibazioa galtzeko arriskua izaten dute, eta dena alde batera uzteko tentazioa izan dezakete”. Haren aburuz, garrantzitsua izan zen psikologoaren jarraipena, ikasketekiko interesa gal ez zezan.

Pertsona bakoitza mundu bat dela esan ohi da, eta adimen gaitasun handia duten ume guztiak ez dira berdinak. Dena den, adimen handia izateak berarekin dakartza hainbat nolakotasun edo ezaugarri: burmuinaren etengabeko aktibitatea, sentiberatasun emozionala,



Asier Garmendia, Julen Landa eta Landaren ama Hegoa Larzabal.

ikasteko erraztasun eta abiadura handia, lanean luze aritzeko gaitasuna eta sormen handia.

Larzabalek dioenez, “zerbait” sumatuta zeuden psikologoarengana jo aurretik: “Gauza berezi batzuk bazirela konturatuta geunden. Julenek irakurtzeko grin berezi bat zuen, jakin-min ikaragarria ere bai. Neuk umeak izan aurretik ez nekien horiek zenbat galdera egiten zituzten, baina gureak beti zerbait jakin nahi izaten zuen... Hasieran pentsatzen genuen telebistan entzungo zituela galdetzen zituen gauzak, baina ez zen horrela. Hainbeste galdera izateak lo egitea ere galarazi egiten zion...”. Garmendiak ere oroitu ditu ikastola garaiko bizipenak: “Batuketak egiten hasi ginenean, oso erraz moldatzen nintzen, eta ez aspertzeko beste erronka batzuk jartzen nizkion nire buruari; adibidez, ahalik eta denbora laburrenean amaitzea ariketak”.

Adimenaz haratago

Gaitasun handia duten haurrek beste ezaugarri batzuk ere izan ohi dituzte; asko beren artean errepikatzen direnak, eta beste batzuk errepikatzen ez direnak. Larzabalek azaldu duenez, Julen beldurrekin hasi zen duela urte batzuk. “Oso katastrofista zen. Aurreratu egiten zen gerta daitekeenari; hau da, auto bat baldin bazetorren, zebraidea gurutzatzerako besotik heltzen zidan, autoa etortzeko arriskua ikusten zuelako”.

Garmendiak dioenez, berak ez du ezaugarri hori izan sekula, baina zuzentasuna etsai bilakatu izan zaio behin baino gehiagotan. “Gauza bat modu batera egin behar bada, aldaketa txiki bat egin eta gaizki eta urduri sentitzen naiz. Gauzak zuzentasun baten barruan egin behar izaten ditut”. Larzabalek ere ildo beretik hitz egin du. “Oso zentzuduna da Julen ere: arauak hala badio, ezin du desbideratu. Zentzuak esaten badio zerbait ez dagoela ondo eginda, ez du egingo; eskua sutan jarriko nuke”. Askotan, gauzarik sinpleenak jartzen ditu urduri, Julenen amak jakinarazi duenez: “Umeari esaten badiot bihar Zarautzera goazela, baina bihar edozer gauzagatik Zumaiara joatea erabakitzen badugu, zergatia azaldu egin behar izaten diot, ez delako lasai egongo. Ez du balio ‘nik esaten dudalako’ erantzuteak; izan ere, ‘zergatik, ordea?’ galdetuko dizu berriz ere. Erantzun artean ez da lasaituko, arrazoi bat



behar izaten dutelako”. Horri lotuta, ikastola garaiko oroitzapen bat ekarri du gogora Garmendiak: “3-4 urterekin futboleant ibiltzen ginen, eta beren atean gola sartuta ere ospatu egiten zuten lagunek. Nik ezin izaten nuen hori ulertu, izugarritzko beroaldiak izaten nituen horregatik”.

Adimen handia duten haur askok harremanetarako arazoak ere izan ohi dituzte, baina Garmendiak dioenez, ez da bere kasua izan. “Ni lagunekin irekia izan naiz, eta ez dut harremanetarako arazorik izan. Hori bai, unibertsitatean ezagutu nuen sozializatzea asko kostatzen zitzaion lagun bat; oso itxia zen, baina ni baino askoz ere azkarragoa zen hura [barrez]”. Larzabalek azaldu duenez, Julenek ere ez du oraingoz arazorik izan; are gehiago, eskolara “oso gustura” joaten dela azaldu du haurrak. “Matematika gustatzen zait gehien, eta natur zientziak ere bai. Kirola, berriz, ez asko, baina bizikletan eta igeriketan gustura ibiltzen naiz”.

Ez abantaila, ez desabantaila. Adimen handia izateari ez diote ez bata ez bestea ikusten Garmendiak, Landak eta Larzabalek. Hala dio Garmendiak: “Batzuek esango dute ‘ederra izan behar du eskolan erraz ibiltzea’, baina... Arlo akademikotik kanpo ez dit eragin bizitzan; pertsona batzuk gauza batzuetan izaten dira onak, eta besteak, beste batzuetan. Gure ezaugarria da azkartasuna dugula arlo akademikoan, baina gehiago ez”. Landak dioenez, ez da besteekiko desberdin sentitzen, baina haren amak azpimarra egin du horretan. “Gizarteak ikusten ditu desberdin, eta nik ere jende askorekin jokatu izan dut horrela ama izan aurretik; uste dut akats handi bat dela. Ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen barrera moduko bat jartzen zaie: zerbait esaten badute ‘listilloak’ dira, nota onak atera behar izaten dituzte... eta hori ez da horrela. Beren buruak desberdin funtzionatzen du; guretzat bat da logika, eta adimen altuko pertsonentzat beste bat”.

Etzeko lanketa

“Bizitzen ari garena polita ari da izaten, baina une konplikatuak ere pasatu ditugu”, azaldu du Larzabalek. “Negar asko egin dut, baina gaia etxean beste ikuspuntu batetik hartzea erabaki genuen: ahal genuen gehien disfrutatu, Julenekin batera ikasi eta ahal bezain beste baliabide

GARMENDIARI 10 BAT URTEREKIN DIAGNOSTIKATU ZIOTEN ADIMEN HANDIA, ETA IAZ LANDARI

ADIMEN HANDIA IZATEAK BERAREKIN DAKARTZA HAINBAT NOLAKOTASUN EDO EZAUGARRI



eman haurraren beharrak asetzeko”. Larzabalek aitortu du semea “asko” ari dela ezagutzen: “Adimen handia duten ume batzuek zaratekiko sentikortasun handia izaten dute, eta nik hasieran ez nuen ulertzen Julenek zergatik estaltzen zituen belarriak zarata pixka bat zegoenean. Asko ari gara ikasten, eta uste dut bera ere aberasten ari dela”. Beste adibide bat ere jarri du: “Lanetik etxera iritsi eta ‘ez dakit zer zati bost egiten badut...’ esaten hasten zait agian, eta nik zer esan behar diot? Isiltzeko? Bihar egingo dugula ariketa? Entzun egingo dut? Entzutea eta erantzutea behar izaten du, baina askotan esaten diot ez dudala ideiarik eta hurrengo egunean begiratuko dugula Interneten. Eta eskerrak Internet daukagun!”.

Julen semearekin adimen handiaren gaia lantzea “erraza” izan dela azaldu du haren amak. “Hasieratik egia esan genion: psikologoa medikua dela, eta hark lagunduko ziola zituen kezkek argitzen. Egia esan, Julen asko askatu zen zer gertatzen zitzaion azaldu genionean. Ez dugu sekula ezkutuan jardun, baina Julenek ikasi behar izan du oharkabean pasatzeko lan egiten, eta hori onartzea oso gogorra egin zait”. Larzabalek dioenez, berak nahi duen gauza bakarra da semea beste haur guztien parekoa sentitzea: “Inori minik emango ez dion haur bat izan dadin nahi dut, eta Julen horrelakoa delako inor ez mintzea. Izan ere, alde horretatik izan ditugu zailtasunak... Dena den, gorabeherak gorabehera, ume zorionsua da gaur egun Julen”.

Halako egoerei aurre egiteko eta bidean amore ez emateko, adimen handiko haurretan adituak diren psikologoek laguntza goraiatu dute Garmendiak eta Larzabalek. “Eskolako erritmoa segitzea kostatzen zaionari lagundu egin behar zaio eta haren gainean egon behar da; gure kasuan gauza bera, ikasketekiko interesa galtzeko arriskua erreala baita”, azaldu du Garmendiak. Psikologoek egiten duten lana goraiatu du Larzabalek. “Umeak motibatuzeko hitz magikoak dituzte psikologoek; harengana joatean, pilak karga-karga eginda itzultzen da Julen. Asko askatzen dira; izan ere, guretzat txorakeria bat dena arazo ikaragarri bilakatzen da haur hauentzat askotan”.

Balizko isekak, lagun arteko arazoek, *bullying*ak eta *mobbing*ak kezka sortzen diote Larzabali. “Desberdina izatea ez da txarra, baina desberdina baldin bazara... Asko irakasten dute desberdinak diren

pertsonek, eta ez diogu beldurrik izan behar desberdin izateari. Dena den, desberdin izateagatik sortzen diren arazoek ez dute sorburua eskolan, etxeko sukaldeetan baizik; hor hasten dira arazoak. Haurrak etxeko sukaldean edo kafe baten bueltan gurasoen ahoetatik gauza batzuk entzuten baditu, eskolara iristean erreproduzitu egingo ditu entzundakoak”. Hain zuzen ere, horri aurre egiteko baliabideak ere ematen dizkie psikologoak. Garmendiak, berriz, halakorik ez duela bizi izan esan du: “Adimen handia izateak niri ez dit eragin horretan, baina errealtate bat da”.

Jakin-min handia, arrazoiak bilatzeko beharra, erronkak ezartzeko gogo... Adinean alde nabarmena badute ere, horiek dira, besteak beste, Garmendiak eta Landak dituzten ezaugarrietako batzuk. Bizi izandakoak emandako esperientziatik aholku bat eman dio Garmendiak Landari: “Erronka berriak bilatu beti, garrantzitsua da bide berriei ekitea. Disfrutatuta ikasten, gustatzen zaizuna egin, eta gogoratu gauza asko ikasteko aukera duzula oraindik. Gozatu gustatzen zaizun gauzekin”.

Garaiz atzematearen garrantzia

Adimen gaitasun handia duten haurrekin egiten du lan Gonzalo Vilasau (Donostia, 1983) psikologo klinikoak; tartean, Landarekin. Hark azaldu duenez, “garrantzitsua” da gaitasun hori garaiz atzematea, haurraren izaeraren garapena zaintzeko. “Autoestimua, harreman sozialak eta ikasketen garapena lantzea garrantzitsua da; izan ere, egunerokoan zoriontsu sentitzen ez diren haur, nerabe eta heldu ugari izaten ditugu kontsultan”.

Vilasauk azaldu duenez, adimen gaitasun handia duten haurrek ezaugarri batzuk izan ohi dituzte, eta bada errepikatzen den zera bat: haur horiek gainerakoek baino azkarrago ikasten dute. “Askok oso txikiak direla ikasten dute irakurtzen, eta askok sentsibiltate handia izan ohi dute, eta horrek eragin egiten die besteekin harremanak egiterakoak edo pertsonen arteko gatazketan. Gainera, frustrazioarekiko tolerantzia gutxi izan ohi dute. Dena den, asko motibatzen dira interesatzen zaizkien gauzekin, eta sormena garatzen dute askotan”.

Desberdin izatean jarri du arreta psikologoak: “Gizarte honetan arazo bat izan daiteke hori, edo gutxienez, zailtasun batzuk ezartzen zaizkie desberdin diren pertsonei”. Dena den, adimen handia duten pertsonek ere behar afektiboak dituztela, beren gaitasunak garatu behar izaten dituztela eta horiek ere harreman sozialak zaindu behar izaten dituztela azpimarratu du. “Urteak dira adimen altuko haurren gurasoak egoera gatazkatsuak eta eskola eremuko arazoak salatzen ari direla, eta beharrezkoa da haur horiei hezkuntza arreta berezia eskaintzea”.

Vilasauk bat egin du Larzabalaren eta Garmendiaren esanekin. “Askotan umeak motibatuta hasten dira eskolan, baina askotan ikasketak desmotibatuta eta lur jota edo etsita amaitzen dituzte”. Azken urteetan, baina, ume horiei arreta eskaintzeko kontzientzia areagotu egin dela uste du. “Familiei, elkartei, psikologoei eta irakasleei esker lortu da hori, baina gizartea hezkuntza sistemaren aurretik dioa. Horregatik, aldaketa emateko irakasleen rola oso garrantzitsua dela uste dut, eta horiek babestu egin behar ditugu, baliabideak eta formakuntza eskainita”. ■■■



ADIMEN HANDIKO HAURRETAN ADITUAK DIREN PSIKOLOGOEN LAGUNTZA GORAIPATU DUTE

“GARRANTZITSUA” DA GAITASUN HORI GARAIZ ATZEMATEA, HAURRAREN IZAERAREN GARAPENA ZAINTEKO

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: **943-15 16 40**
Larrialdiak: **688 69 29 51**



IRENE ALTUNA
SORADENEA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikamadenria.com



ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Xabier
margoak

Pinturak eta Parket Laminatuak

Pablo VI, 20 - Tel: 943-15 73 25 - www.xabiermargoak.com



ADI
AITE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA

- **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
- **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
- **Talla** 18:30 - 20:00

Jose Artabe kalea, 3
943 21 28 08
www.adiaino@gmail.com
Matxula urte osan zabalik



Alerza Autoak
CITROËN Behar duzue konfiantzazko salerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



EuroRacer EL BOTALLER MULTIMARCA ZERBITZUA

NON DAGO UZTARRIA?

Ainhoa Izagirre da hilabete honetako irabazlea.



Martxoko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Ainhoa Izagirre bazkidea izan da irabazlea. Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara apirilaren 21a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira. **Saria:** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.



URDAIAZPIKO, HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Ez dut imajinatzen zer izango litzatekeen bizitza margotu gabe"

PEDRO LUENGO MARGOLARIA

Bizitzako beste esparru batzuetan sentitzen ez duen askatasuna ematen dio margotzeak Pedro Luengori (Azpeitia, 1969). "Pinturarekin lortu dudana da egindakoa gustatu egiten zaidala, eta beste arlo batzuetan, agian, exijenteagoa naiz". Bizitzako momentu "politenetako batean" dago artista, emozioz gainezka.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.

Harrigarria: pintzelak eskuan dituela gosaltzen du Pedro Luengok. "Gosaltzen ari naizen bitartean ere margotu egiten dut. Azkenaldian horrela nabil, eta askotan, berandu iristen naiz lanera [erdi lotsatuta]. Nik behar dut margotzea. Ez dut imajinatzen zer izango litzatekeen bizitza margotu gabe. Nire egunerokoan gero eta leku handiagoa betetzen du margotzeak. Sekulakoa da. Pintatzeak dena ona eman dit, ez dit ezer txarrik eman", dio.

Pintzelak astintzen orduak ematen baditu ere eta haren afiziorik handiena margotzea den arren, erabat bestelako ikasketak egin zituen Luengok: Ekonomia ikasi zuen unibertsitatean, eta aholkularia da lanbidez. "Kuriosoa da; ekonomia ikasketak egin nituen, baina Arte Ederrak ikasi nahi nuen berez. Orain haurrei gehiago esaten zaie nahi dutena egiteko, baina lehen Zuzenbidea, Ekonomia, Enpresen Zuzendaritza, Medikuntza eta halakoak ikastera bultzatzen gintuzten. Lehen, esaten ziguten etorkizuneko lanari begira aukeratzeko ikasketak, baina orain gehiago begiratzen zaio norberaren zorientasunari; lana irtingo da irten behar baldin bada".

Bilbon egin zituen ikasketak Luengok, eta ondoren, urte batzuez herritik nahiko urrunduta ibili zen, lana tarteko. Dena den, 30 urterekin Azpeitira itzuli zen, eta proiektu berri bati ekin zion: aholkularitza gunea zabaldu zuen kide batekin. Orduantxe kasu egin zion aspaldidanik barruan zuen harrari ere: margotzen ikastea erabaki zuen, eta eskola batean izena eman zuen. "Aurrez, Bilbon ikasten ari nintzela, ez nintzen margotzen hasi, asko zentratu nintzelako ikasketetan. Oso arduratsua eta diziplinatua izan naiz, eta ez nuen denborarik hartzen margotzeko. Azterketak derrigor gairitu behar izaten nituen; kirol pixka bat egin eta ikasi, hori zen nire egunerokoa. Ikasketak bukatu nituenean ere, Donostian aritu nintzen lanean; egun guztia lanean ematen nuen, eta ez neukan denborarik. Eta Azpeitira etortzearekin batera, Diarten eman nuen izena".

Betidantik egin nahi izan duen hori egitera ausartu zen 30 urte zituela, eta beste hogeigarrota, oraindik ez dio utzi margotzeari. "Utzi ez, alderantziz: gero Azkoitira joaten ere hasi nintzen, Udane Juaristirekin ikastera. Bi eskoletatik pila bat xurgatu dut, eta egunero ari naiz ikasten". Gaur egun, ez du imajinatzen nolakoa izango zen bere bizitza





margotu gabe. "Uste dut lan artistikorik egin gabe ezingo nukeela bizi, ez nioke zentzurik bilatuko. Egun osoa lantokian emateko jaiki eguna joan eta eguna etorri? Horrela ezingo nuke bizi".

Diarten izena eman aurretik, margotzen zuen zerbait etxean Luengok. "Baneuzkan marrazkiak-eta eginda. Orain, lotsatu egiten naiz horiek ikustean. Aitari erretratu bat egin nion, desastre bat. Izan ere, margotzeko ikasi egin behar da pixka bat. Badaude batzuk dohaina daukatenak, naturalki irteten zaienak, baina trebezia eduki arren, teknika pixka bat ikasi egin behar da. Zenbat eta gehiago aritu, gehiago hobetzen duzu; denean bezala".

Behin ikasteko pausoa emanda, batean eta bestean erakusketak jartzera ere animatu da urteotan Luengo. Orain, gainera, margotzeko gune bat prestatu du Alde Zaharrean. Urteotan egindako lana jendeari erakusten hasi da nolabait orain gutxi, eta erantzun ona jasotzen ari dela azaldu du. "Uste baino askoz ere hobea. Kostatu egin zait neure baitan ditudan gauza onak ikustea, baina orain hasi naiz horiek ikusten. Neure buruarekin lasai egoten, eta den bezala maitatzen ari naiz". Nabari zaio emozioz gainezka, pozik, gustura dagoela. "Nire bizitzako momentu politenetako batean nago".

Luengok uste du haren lanek badutela zerbait komunean. "Nire iritiz, 'artistek' sentsibilitate

berezia izan ohi dute, eta hori ikusi egiten da. Bakoitzak bere gaiak landu ohi du, eta uste dut nire gaiak honako hauek direla: alde batetik, hiriak; eta bestetik, ez dakit zergatik, baina bakardadea ere islatzen dute nire koadroek. Nire lanek badute tristura puntu bat, eta kolore falta batzuetan, gehienetan. Hala ere, ez dira penagarriak aldi berean; alaitasunetik egindakoak dira, baina nostalgia puntu bat lortu nahi izaten dut. Begiratzen duenak ez dakit hori ikusten ote duen, baina... Jendeak esaten duenaren arabera, azkar nabaritzen da nire koadroak zein diren. Eta hori seinale ona da; horrek esan nahi du badutela elkartzen dituen zerbait".

Pedro Luengo

- **Jaiotze data:** 1969ko uztailaren 23a.
- **Ikasketak:** Ekonomia.
- **Lanbidea:** Aholkularia.
- **Margolaria ez banintz...** Arropa diseinatzailea.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Ondo egoteko, behar dut pasiera edo kirola egitea. Eta gero ja margotu, beti.

Bada haren koadroek askotan bereizgarri izan ohi duten ezaugarri bat: zenbakiak eta letrak erabiltzen ditu margolanak osatzeko. "Uste dut kontrastea lortzeko hasi nintzela hori egiten, edo modernitate puntu bat emateagatik. Behin ipini nituen, eta gustatu egin zitzaizkidan, eta orain, seinale bezala ipintzen ditut, ukitu hori atsegin dudalako. Eta jendeak eskatu egiten du, gehienei gustatu egiten zaie kontraste hori. Erantzunik ez daukan galdera da zergatik aukeratzen ditudan hizki edo zenbaki jakin batzuk; parean tokatutakoak jartzen ditut, ez diot denbora asko eskaintzen horri".

Hiriak, pertsona ezagunen edo ezezagunen aurpegiak, testuinguru ezberdinetan bakarrik aurkitzen diren pertsonak, begiradak... Horiak denak aurkituko ditu Luengoren koadroei begira jartzen denak. Margolan horietako asko bidaietan ateratako argazkietatik abiatuta sortzen ditu: "Niretzako bidaiatzea da bizipenik ederrena. Asko ikasten duzu bidaiatzean, eta asko garatzen da norbera. Ireki egiten zara, lehen garrantzia ematen ez zenien gauza batzuei eman egiten diezu, zoriontsu izatea zer simplea izan daitekeen ikusten duzu... Bidaietatik gauza on asko ekartzen ditut, eta horietako asko daude koadroetan". Urrutira joan ezin den honetan, "bidaiatzeko modu bat" da Luengorentzat margotzea. "Margolanekin ere, toki horietara joaten zara".

Bidaietan ez ezik, beste hainbat lekutan ere bilatzen du inspirazioa Luengok. "Orain, edozein tokitan bilatzen ditut ideiak. Egunkarietan, aldizkarietan, telebistako film bat ikustean... Ez dut kontzienteki egiten, baina denean ikusten ditut gauzak. Oso kuriozoso da". Teknikari dagokionez, margo akrilikoekin lan egiten du Luengok. "Lehen olio pinturekin margotzen nuen, baina orain akrilikoekin, azkartasuna ematen dutelako eta horiekin ondo moldatzen naizelako".

Margotzeak "asko" eman dio artistari. "Nire barruan dauden gauzak erakusteko aukera eman dit, agian hitzen bidez esaten jakin ez ditudanak. Beharbada, pixkanaka zein naizen erakusten joan naiz koadroetan: gertatu zaizkidan gauzak, zeri ematen diodan garrantzia... Hainbeste eman dit margotzeak... Energia eman dit, estetikarako gustua, jende mundial asko ezagutzeko aukera, haiekin izandako elkarrizketak... Eta orain, sekula imajinatuko ez nuena ematen ari zait: ia lanbide berri bat bilakatzen ari da". Aukera bat izan al daiteke lana utzi eta margotzetik bizitzea? "Ez dakit. Nire lanbideak segurtasun ematen dit,



baina margotzen asko gozatzen dut. Nire helburua da biak gehiago uztartzea".

Margotzen hasi zenetik hogeit hamar urte igaro direnean, margolanetan pixkanaka bere izaera irten dela ohartu da. "Eta uste dut gero eta gehiago irtengo duela; izan ere, pixka bat soltatzeko ari naizela konturatzen naiz. Konformeago bezala pintatzen dut, antzeman egiten dut". Haren izaera nolakoa den galdetuta, zera dio Luengok: "Sentibera, zintzoa, diziplinatua, nostalgikoa, alaia, eta aldi berean, triste puntu bat ere badut. Pixka bat konplexua ere banaiz, eta afizio asko ditut. Ez dakit geldirik egoten, eta bizitzan ez dut izango nahi ditudan gauza denak egiteko denborarik: dena egin nahi dut, eta ezin dut. Hori askotan gertatzen zait niri: nahi dut bidaiatu, hemen egon, margotu, musikaz gozatu... Orain konturatu naiz gauzak ez nituela hain gaizki egingo, inguruan jende asko daukadalako. Hori gustatzen zait nigandik". ■■■



Espezie Festa

Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorenik gabeak atera zaizkie, ordea. Mangotu itzazu zuk.



Itzalak

Lotu itzal bakoitzari bere izena.

Sudokua



Zein ederra den udaberria!

- 1 zerbakiz seinalatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa,
- 2 zerbakiz seinalatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du letra, zutabe eta area bakoitzeko.



ZENBAT TXORI IKUSTEN DITUZU IRUDIAN?

Engainariak



Hamarrekoa

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lau zatietatik bi irudi handitik

hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez dute bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Ordenu itzazu botak handienetik (1) txikienera (6) eta ondoren

Handitik txikiara

mangatu. 1: urdin ilunez eta horiz.

2: laranja eta urdin argiz.

3: Berdez eta arrosa.

4: morez eta grisez.

5: marroiez.

6: gorri.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

TICKET BAI SISTEMA GARATZEN ARI DA SOFTEKIN



Softekin informatika 2022. urtean sortu zen, enpresa txiki-entzatzat eta handientzatzat euskarazko softwareak sortzeko asmoz. Garatu zuten lehen proiektu garrantzitsuena Elkar-Takt programa izan zen, elkarte gastronomikoak kudeatzeko sistema. Gaur egun, software desberdinak dituzte sortuta, bezero bakoitzari “ongien egokitzen zaiona” eskaintzeko. “Momentu honetan, gure bezero guztiei Ticket BAI legea betetzen laguntzeko ari gara lanean buru-belarri”.

Zer da Ticket BAI?

Eusko Jaurlaritzak, hiru aldundiekin batera, zerga iruzurra saihesteko martxan jarri duen arau berria da. Aurrerantzean, faktura edo tiket bat sortzen den unean, Ogasunera bidali beharko da, eta faktura horietan, QR kode baten bidez, aurkeztutako informazioa ikusi ahalko du bezeroak.

Nork behar du Ticket BAI?

Oro har, fakturak eta tiketak egiten dituzten profesionalak: arotzak, elektrizistak, ostalariak, ile apaindegiak, fisioterapia zentroak, hortz klinikak, saltokiak, akademiak, autonomoak eta abar.

Denentzatzat irtenbideak dituzue?

Bai, bezero txiki-entzatzat nahiz handienentzatzat; bakoitzak behar duenera egokitzen diren programak ditugu. Gure programak moduluz osatuta daude, eta, beraz, bakoitzari behar duena soilik ezarriko diogu.

Noiz hasten da martxan?

2022. urtean zehar, gradualki sartuko da legea indarrean.

Nora zuzendu behar du Ticket BAI bete behar duenak?

Gu prest gaude! Softekinera zuzendu daitezela eta guk lagunduko diegu beraiek behar duten neurriko programa aukeratzeko.

Dirulaguntzak egongo al dira?

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du borondatez epearen aurretik sistema martxan jartzen duenari laguntzak eman- go dizkiola, eta espero dugu software horiek euskaraz jar- tzeagatik ere emango dituztela laguntzak.

BEZERO TXIKIENTZAT NAHIZ HANDIENTZAT; BAKOITZAK BEHAR DUENERA EGOKITZEN DIREN PROGRAMAK DITUGU

Euskaraz egongo al dira programak horiek?

Guk ditugun programak euskaraz ere eskaintzen ditugu, guretzat oinarritzakoa baita zerbitzua euskaraz eskaini ahal izatea.

Zer zailtasun ikusten dituzue?

Jendeak lan egiteko modua aldatu behar du, eta progra- mak errazak diren arren, egokitze denbora beharko du. Gure gomendioa da inplantazioa lehenbailehen egitea, az- ken ordura arte utzi gabe. Gu prest gaude!



Iberotarren Plaza 8 Behea
20730 Azpeitia, Gipuzkoa • Tel: 943-81 51 51
softekin@softekin.com

Layren 50 itzal



IMANOL AMIANO

Cristian Lay gaztea eta erakargarria da. Dirua eta arrakasta dauzka, eta Anazpeitia Steele bere sarean harrapatu nahian dabil.

Bandage jolasak ditu gustuko Layk: mozala ahoan, loturaz begiak estalita, eskuak, hankak, gorpuzkia immobilizatu nahi dizkio altzairuzko damari, bero-beroa urtu eta xaflatuaz izateko. Dominazio eta mendekotasun jolas erotikoen, sadomasokismoak burua aztoratuz diezagukete, jolasak jolas hutsalean gera daitezke eta berriro izorra gaitzakete.

Badira zortzi urte Gallardok labeak hotz utzi zituela, eta ez da harrizkoa zorioneko garai zaharren kilima haiek berriz sentitu nahi izatea. 300 langile katean geratu ziren –langabeziak %15eraino egin zuen gora–, eta Corrugados Azpeitia itxi eta desegin zuen; gure altzairuzko poxpolina *shock* egoeran geratu zen. Duela bi urte, KKR putre-funts estatubatuarrak erosi zuen Gallardo taldea, eta, iazko udan, pandemia betean, gure Cristianek –Lasaoko eta Trukutxoko instalazioak barne, noski–, putreei. 140 lanpostu zuzen eta zeharkako beste 350 sortuko omen ditu. Bikoitza ere irakurri dut hor nonbait. Ez dakit, ba. Lealdarrek –Alfonso Gallardo bezala Extremadurako Jerez de los Caballerosek– hartzekodunen konkurtoan

edota itxita dauden enpresak bereganatzen omen dituzte, eta herrian bertan tankerakoekin izandako esperientziak ez dira izan, nola esan... kitzikagarriak. Eta, bestela, galdetu Danonakoei zein diren Paco Vera eta bere Porsche Panamera.

Putreek, marrazoek harrapakina begiztatzen, usaintzen dute, hozka zatikatzen, mokoka osorik erauzten, itsas hondoa murgilduta, edozein eremutan abandonatuta utzi arte hezurdura. Ikusi dugu antzekorik Gestamp, General Electric, Aernnova edota Siemens Gamesa bezalako multinazional harrapariekin: *streapteasse* esperantzagarri bezain iruzurtien ordainetan, agintari limurtuek subentzioak papar oparoetan barrena sartzen dizkiete, lerdea dariela. Eta haiek, *mantis religiosas* bailiran, estalaldiaren ondoren, aseta, gorpuzkiak baino ez dituzte uzten.

Arcelor, Sidenor edota Tubacexen gertatzen ari dena ikusita, ez dirudi altzairugintzarentzako garai

**PUTREEK, MARRAZOEK
HARRAPAKINA
BEGIZTATZEN,
USAINTZEN DUTE,
HOZKA ZATIKATZEN**

onenak direnik. Iazko azaroan, urrutira joan gabe, lantegia irekitzea ez omen zen bideragarria. Orduan, zer aldatu da ba? Herri erdi-erdian, 79.000 metro koadroko orube erakargarria, desiragarria da Martxielenekoa. Hori ote? Hor, zegoen lekuan, eta ez beste inon nahi du LCk altzairutegia; labeak lekualdatzeko astirik ez omen dago: "Hemen eta orain". Tapiaren ingurumen alorreko baimena besapean du Lealek, Larrañagaren bedeinkapena ere bai, baina *ménage à trois* horren aurrean Alkortak azaldu du lur horiek dagoeneko ez direla industria-eremu, eta legea urratuko litzatekeela 2013an udaleko talde guztiek aho batez onartutako Hirigintza Plan Orokorra *ad hoc* aldatuz gero, gainerako *eragileek* eskatzen dioten moduan. Eta hasi dira teilatuatarako pilota jaurtiketak.

Zortzi urte pasatuta, langile haiek josi dituzte beren bihotz zartatuak, herriak berrekin dio bizitzari. Eta hara non agertu zaigun Cristian –kate eta narru, giltzarrapo eta zartailu–, lizun. Hobe lukete denek Cristian estu lotzea, "aktiboki eta pasiboki" proposatu duena "benetako borondate" solean gera ez dadin. Eta denborak esango digu *Layrenak 50 itzal are eta ilunagoak* ala *50 itzal askatuak* diren. ■

Arrakalarekin amaitzeko, sarea

Digitalizazioak, onurak ez ezik, buruhausteak ere ekarri dizkie hainbat herritarri. Izapideak telematikoki egiten diren garaiotan, agerian gelditu dira arrakala digitalaren albo kalteak, eta KZ guneak gabezia digital horri aurre egiteko formakuntza eta aholkularitza eskaintzen ditu.

Testua eta argazkiak: **Anartz Izagirre.**

Gailu teknologikoz inguratuta bizi gara, eta egun ez dugu eskuko telefonorik, ordenagailurik eta Internetik gabeko gizarterik imajinatzen. Halako tresnak bizitza osoan gure artean egon izan direla dirudien arren, digitalizazioa ez da hain kontu zaharra. Duela gutxi arte ez zen hain ohikoa etxean ordenagailua eta Interneta izatea, lehengo sakelakoek antenadun aparailu zaharkituak dirudite egun, eta sare sozialen beharrik gabe jendeak harremanak sortzeko beste gune batzuk erabiltzen zituen.

Digitalizazioak eta garapen teknologikoak onurak ekarri dizkiete askori; beste batzuek, ordea, kalteak gehiago direla diote. Kontuak kontu, gero eta ohikoagoa da unibertsitateko beka zein erakundeetarako laguntza eskaerak telematikoki egitea, baita egunkaria sarean irakurtzea, ikasleek klaseak *online* jasotzea eta urrun bizi diren lagunekin bideo dei bidez hitz egitea ere. Horrek guztiak eragina du bereziki adin batetik gorako jendearengan, eta arrakala digitala kontzeptua gero eta ezagunagoa

bilakatu da jendartearen. Asko dira erabiltzaileen zalantzak, beldurrak zein zailtasunak, eta horiei sarritan ezinezko zaie sarearen aurrean babesgabe ez sentitzea.

KZgunea telezentroen sare publikoak hogeitau urte daramatza Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako arrakala digitala desegiteko lanetan. 2001ean egin zituen lehen urratsak, eta ordutik hiru lurralde horietako udalerriguztietan du zentroa; tartean, Azpeitian. Bitarte horretan, behar digitalek ez ezik, KZguneak berak ere bilakaera handia izan du, eta erruz aldatu da telezentroen eguneroko jarduna. Enparan dorretxean du egoitza Azpeitiko KZguneak, eta Gema Uria (Azpeitia, 1978) da hango hezitzailea. Haren arabera, “asko” aldatu dira herritarren beharrak azken hogeitau urteetan: “Lehen jendeak ez zuen ordenagailurik etxean, eta KZgunera joaten zen nabigatzera. Ni neu, adibidez, erabiltzailea izan nintzen hemen lanean hasi aurretik, unibertsitateko lanak egitera etortzen nintzen hona”. Testuingurua desberdina zen orduan, baita KZgunearen jardura ere: “Internet erabiltzen ikastea, posta



elektronikoa kontrolatzea... halako ikastaroak egiten ziren orduan. Gaur egun ere mantentzen ditugu halakoak, baina eskuko telefonoarekin erlazioa duten saioak ere asko ugaritu dira; esaterako, Google aplikazioak erabiltzen ikasteko saioak”.

Uriak dioenez, sinadura digitala lortzeko hartzen dute ordua KZgunean erabiltzaile askok gaur egun: “Administrazio izapideak egiteko sinadura digitala eskatzen dute egun hainbat erakundek, eta jende asko horren bila etortzen da”. Horrez gain, Osakidetzarekin duten harremana azpimarratu du KZguneko hezitzaileak: “BakQ tresnarekin, erabiltzaileek mediku txostenak, Osakidetzako hitzorduak eta analisisen emaitzak ikus ditzakete sarean; horrek asko errazten ditu herritarren hainbat izapide, eta gai horren inguruko saioak eskaintzen ditugu”. Horrez gain, aurrez aurreko zein urruneko dozenaka ikastaro eskaintzen dituzte, eta adin guztietako erabiltzaileek parte hartzen dute horietan: “Oposizioak egiten ari direnek IT txartela ateratzeko ikastaroak egiten dituzte. Bestalde, jende heldua ere etortzen da ikastaroak egitera. Garai batean jende asko

nabigatzera etortzen zen, baina gaur egun oso jende gutxi du behar hori”.

Urte luzez KZguneko erabiltzaile izan den herritarretako bat da Pedro Oiarzabal (Azpeitia, 1947). 2007an egin zen hango erabiltzaile, eta, ordutik, hainbat ikastarotan parte hartu du. “Gauza berriak ikasteko gogoia” zuelako egin zen azpeitiarra KZguneko erabiltzaile: “Duela hamalau urte hartu nuen erretiroa, eta orduan hasi nintzen gailu teknologikoak erabiltzen”. Hasieran, ordenagailua nola erabili ikasten hasi zen; gaur egun, ordea, sakelakoa ere erabiltzen du, eta “oso ondo” moldatzen dela dio. Bestek beste, genealogiarekin lotura duten plataformetan ibiltzen da: “Family Search, My Heritage eta halako guneak bisitatzen ditut. Horrez gain, ikastaro berriak ateratzen dituztenean, lekua dagoen guztietan ematen dut izena”.

Gabezia digitalak agerian

Uriaren arabera, arrakala digitalak helduei eragiten die gehienbat: “Adin nagusiko jende asko konturatzen da gero eta hutsune digital handiagoa duela, eta horrek atzerakada eragiten

die horiei. Gainera, une batzuetan mugatuta ikusten dute beren burua; adibidez, banketxera joaten direnetan eta". Oiarzabal bat dator: "Niretzako aldaketa ikaragarria izan da gailu teknologikoak erabiltzen ikastea. Nire adineko jende askok ez du ikasi nahi, ez direlako teknologiarekin moldatzen edo ez dutelako moldatu nahi. Nirekin ikastaroa egin duten asko eskuko telefono zahar batekin etortzen dira ikastaroa egitera, eta noizko piztu sakelakoa... Iruditzen zait adineko erreminta onak behar ditugula eskura; horrek ematen dizu gehiago ikasteko gogoia".

Txanponaren beste aldean, ordea, KZguneko erabiltzaile diren "adineko jende asko" dagoela azaldu du Uriak: "KZgune batzuetan 70 eta 80 urtetik gorako jendea ere ibiltzen da ikastaroak egiten, eta batzuek sare sozialak kontrolatzen eta guzti ikasten dute. Beharbada, dena ez dute ikasiko, baina gailu teknologikoak erabiltzeko lain ikasten dute behintzat". Oiarzabal da sare sozialak kontrolatzen dituen erabiltzaileetako bat: "Facebook, Instagram, Twitter eta WhatsApp sare sozialak behintzat erabiltzen ditut". Gai horren harira, Uriak dio "zaila" dela teknologia arloan eguneratuta mantentzea: "Lehen Facebooka zuen mundu osoak, gero Instagrama izan zen, eta orain, berriz, Tik Toka. Oso azkar aldatzen dira joerak, eta beti egongo da arrakala zentzu horretan".

Bestalde, osasun krisiak arrakala digital hori areagotu egin duela azaldu du Uriak: "Adituek esaten duten pandemia dela-eta bospasei urte aurreratu dela digitalizazioaren prozesua. Beraz, lehen salto handia bazegoen, orain are handiagoa dago. Digitalizazioa abiada handian doa aurrera, eta norbera ez bada zulo horri aurre egiten ahalegintzen, gero eta zulo handiagoan sartzen da". Ildo beretik, Uriak dio adin nagusikoek ez ezik, besteak beste, eskoletako haurren gurasoek ere bizi izan dutela gabezia digital hori: "Unibertsitateko bekak eskatzerakoan, esaterako, ikasleek guztia telematikoki egin dute 2020an. Guraso asko etorri zitzaizkigun galdetzerara bide hori segurua al zen. Iruditzen zitzaien *online* eginda zerbait gaizki egiteko aukera handiagoa zutela".

KZguneak 2020ko martxoan atek itxi behar izan zituen gainontzeko zentro publikoen moduan, eta aurrez aurreko ikastaroak eta aholkularitza bertan behera utzi zituzten. Zentzu horretan, presentzialki erabiltzaile

gehiago izan ez dituzten arren, azken urtebetean urruneko ikastaroetako erabiltzaile kopurua "bikoiztu" egin dela dio Uriak: "Antzeman dugu jende gazte askok jo duela gugana. Aurrez aurreko ikastaroez gain, bideokonferentzia bidez hainbat saio eta ikastaro ematen ditu KZguneak, eta erabiltzaileak bikoizteaz gainera, Euskadi osoan %10 igo da ikastaroak amaitu dituztenen portzentajea". Urtebete geroago, aurrez aurreko ikastaroak berreskuratu dituzte dagoeneko KZgunean, nahiz eta edukiera murriztu behar izan duten: "Lehen zortzi pertsonako edukiera genuen, eta orain seikoa. Horrez gain, protokoloak bete beharrak ere beste hainbat eragin izan ditu gure eguneroko jardunean".

Zibersegurtasuna eta aztarna digitala

Herritar askori eragiten dien digitalizazioaren beste albo kalteetako bat da zibersegurtasunaren eta aztarna digitalaren auzia. Uriaren arabera, "normala" da jendeak segurtasunaren inguruko kezka izatea: "Mundu paralelo baten modukoa da sarea, eta bizitzan hartzen ditugun neurri berberak hartu behar ditugu sarean ere; adibidez, komeni da pasahitzak inori ez ematea". Oiarzabalek aitortu du berari ere "errespetua" eragiten diola gai horrek: "2007. urtean erosketak *online* egitera ohitu izan banintz, egun beharbada ez nukeen beldur hori izango, baina ez zen hala izan, eta errespetua ematen dit sarean ordaintetako egiteak". Auzi horren harira, Uriak dio KZgunean hainbat formakuntza eskaintzen dituztela, eta ordaintzeko askotariko alternatibak azaltzen dizkietela erabiltzaileei: "Badaude seguruagoak diren beste ordaintetako metodo batzuk; adibidez, aurreordaintetako txartelak". Era berean, "mundu errealean" ere halako beldurrak izan ohi direla nabarmendu du azeptatzen: "Erosketak *online* egiterakoan ez ezik, denda fisiko batean erosterakoan ere sortzen zaizkigu beldurrak. Adibidez, txartelarekin ordaintzen uzten ez badigute edo produktuak itzultzea onartzen ez badute, mesfidantza eragiten digu leku horrek. Sarean ere jendeari gauza bera aholkatzen diogu, jarraibide berberak kontuan izatea".

KZguneko hezitzailearen arabera, sarean nabigatzerakoan gazteek adin nagusikoek baino beldur gutxiago izan ohi dute: "Gazte asko sare sozialekin jaiotzen dira, eta batzuetan ez dute ikusten



Ezkerrean, Pedro Oiarzabal, eta eskuinean, Gema Uria.

GAUR EGUN SINADURA DIGITALA LORTZEKO HARTZEN DUTE ORDUA KZGUNEAN ERABILTZAILE ASKOK

DIGITALIZAZIOAREN ALBO KALTEETAKO BAT DA ZIBERSEGURTASUNAREN ETA AZTARNA DIGITALAREN AUZIA

AZKEN URTEBETEAN URRUNEKO IKASTAROETAKO ERABILTZAILE KOPURUA “BIKOIZTU” EGIN DELA DIO URIAK



pantailaren bestaldean arriskutsua izan litekeen norbait egon daitekeela. Lanketa handia dago egiteko, eta guraso asko beren seme-alabek egiten dutenaren beldur dira”. Ildo horretatik, Uriak dio erabiltzaile asko ez direla konturatzen sarean uzten den aztarna digitalaz ere:

“Facebookek, adibidez, ospe txarra bereganatu du erabiltzaileen informazioarekin negozioa egiten duela zabaldu delako. Sare sozialetan gaztetxoek ez dute ikusten aztarna digitalak eragin dezakeen kaltea zer-nolakoa den”.

Uriaren ustez, “oso zaila” da arrakala digitalarekin amaitzea, eta, horretarako, norberak izan behar du ikasteko interesa: “Batetik, batzuek ez dutelako ikasi nahi, eta, bestetik, digitalizazioa abiadura handian dolako, baina arrakala digitalarekin amaitzea oso zaila iruditzen zait. Erakundeek ordenagailu onak eta nabigazio azkarra eskainita ere, norberak bere partetik jarri behar du ikasteko gogoia”.

Oiarzabal ere bat dator: “Adineko jende asko dago ikasi nahi ez duena, eta horiek animatzeko biderik egokiena ordenagailu nahiz sakelako telefono onak eta horiek eguneratuta izatea da”. ■■■

ikastolak

hezkuntza eraldatzen

BATXILERGOKO AURREMATRIKULA

**ESKABIDEAK EGITEKO EPEA:
2021EKO APIRILAREN 12TIK 23RA**



azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943 15 12 46 • ikasberri@azpeitikoikastola.eus

www.azpeitikoikastola.eus

25 urtera



OLATX ARANGUREN

Nekazal turismoak, furgonetak, karabanak taxutzen hasiak gara dagoeneko udaberriko oporren eskizian. Ez gaude etxean geldirik geratzeko. Ihes egin nahi diogu lotzen, mugatzen gaituen errealitate egoskorriari.

15-16 urte genituela Batxilergoko bigarren mailan Otok eginarazi zigun ariketa batekin gogoratzen ari naiz egunotan. Idazlan batean geure burua handik 25 urtera irudikatzen eskatzen zigun. Ez dakit nondik ibiliko den idatzi hura, baina kurioa egiten zait neure burua etorkizunean nola irudikatzen nuen oroitzea.

Gaur egunean ere COVID-19 osteko garaiarekin amets egiten dugu; bizpahiru egunetan lorik egin gabe, dantzan igaroko ditugun ordu distiratsuekin gozatu. Etorriko da hori ere; etorritako bide beretik joan.

Ez dugu maite bizi dugunean, hemen eta orain egoterik. Iragan bat edo etorkizun bat irudikatu behar izaten dugu egunean bizi duguna digeritu ahal izateko. Geure baitakoak gara beste erremediorik geratzen ez zaigunean.

15-16 urterekin egindako ariketa hartara itzuliz, orduan ere irudimenak hegan ederki zekiela erakutsi zigun. Harley Davidsoanean lanera joanez irudikatu genuen geure burua, Euskadiko selekzioarekin futbol partidak jolastuz, rock talde batean kontzertuak emanez.

Etzerakoan letxuga bat erosi eta bi mila pezeta kobratu zizkigutela kexatzen ginen. Urrun geratu ginen etorkizuna irudikatzerakoan. Dirudienez, ez gara Rappel edo Lola pitonisa izateko sortuak.

Iraganean nahiz etorkizunean bilatzen dugu bizi dugunaren proiektzioa. Nahiko erraz uler dezakegu orainaldiak etorkizuna nahi erara sortzeko duen gaitasuna, baina ez hain erraz memoria bizi dugun errealitatearen arabera sortzen goazen konstruktua dela. Sorgin-gurpil berean bueltaka gabiltza, etenik gabe norbere baitatik kanpo, norbere buruak dioenari arreta handiegirik jarri gabe.

Egia, justizia eta erreparazioa aipatzen dira, norberak ordezkatzeko duen alderdi politikoak eragindako kaltea izanda ere. Badirudi hitz horiek aditzera ematearekin batera, Panoramixen edabe magikoarekin bezala, datorren guztiari aurre egiteko gai garela, erromatarrak, arerioak egurtuz, KO utziz. Baina hori ote orain artean bizi izan dugunarekin bizitzen jarraitzeko biderik jasangarriena? Bizi izan duguna

**MINAK, LARRITASUNAK
BIZI IZAN GAITU, BAINA
ARGIA, LILURA,
IRRIBARREA ERE
GEURETZAT NAHI DITUGU**

ondorengoei modu eraikitzailean, sortzailean transmititzeko daukagun modurik egokiena?

Minak, larritasunak bizi izan gaitu, baina argia, lilura, irribarrea ere geuretzat nahi ditugu. Gutako bakoitzaren bizitzak pisu handirik ez zuen kolektibitatearen baitan hasiak izan gara. Kalea izan dugu urte batzuetan eskola nagusi. Beti zen gutaz gaindiko eginbeharren bat, menpekotasuna zor zitzaion zerbait. Ez ginen geure baitakoak; bazegoen itzal luzeagoko zerbait beti ere. Ahaleginak, sakrifizioak, besteen onura gurearen aurretik jartzeak merezi zuela uste izan genuen, edo halakorik zalantzan ez jartzen erakutsi ziguten behintzat.

3 urte betetzerako ikusi genuen Tejero 23F-an armak astintzen; 6 bat genituen Pasaiaiko sarraskian hildakoak udaletxe azpira ekarri zituztenean; 7 bat Enderlatsako ibai bazterren tristezia etxekoan aurpegietan antzeman genuenean. Zerrendak ez luke amaierarik, baina amaiera jartzeko ordua da.

Irudika ezazue zuen burua hemendik urte batzuetara. Saia gaitzen datorrenari, geure baitakoari onean begiratzen. Ilunetik nahikoa izan dugu. Nik dagoeneko ez dut lanera Harley Davidsoanean joango naizenik amesten, baina nork daki? ■





IRAURGI
Ikastetxea

Batxilergoa

KALITATEA
ETORKIZUNA
PRESTAKUNTZA
GERTUKOA
ETXEKOA



Banakako kontsultak ikasketa buruarekin eta orientatzailearekin
Hitzordua zehazteko, deitu 943 81 02 10



JOXE RAMON

• harategia •









*Bertako produktuak erabiliz,
etxean prestatutako janari eskaintza zabala*

Loiolabide 23 Azpeitia • 943-8105 59 • 636 92 86 49



Altxor txikien geltoki

Azpeitian bada geltoki bitxi bezain eder bat: Burdinbidearen Euskal Museoa. Asko dira bertara etortzen diren bisitariak, baina ez dira horrenbeste museoko altxorrak ezagutzen dituzten herritarrak. Bitxikeria horietako batzuk ikustera bertaratu da Uztarría museora.

Argazkiak eta testuak: **Maialen Etxaniz.**



GELTOKIA, MUSEO

Azpeitiko Julian Elorza etorbideko tren geltoki zaharra Burdinbidearen Euskal Museoa da 1994. urtetik, eta Euskotrenek kudeatzen du, nahiz eta badiren zenbait zerbitzu aurrera ateratzeko lan egiten duten boluntarioak ere. Bertan, Euskal Herriko trenbidearen historian zehar bidaiatzeko aukera dute bisitariak, baita antzinako lurrun trenean bidaiatzeko aukera ere. Gainera, Europako tren bildumarik onenetakoa gordetzen du museoak: lurrun tren makinak, diesel motordunak nahiz elektrikoak, tren automotoreak eta askotariko bagoiak ikus daitezke bertan.



IGELDOKO GERALEKUA

Zati desberdinak ditu museoak, eta horietako bakoitzean bateko edo besteko materiala ikus daiteke. Hain zuzen, honako hauek dira museoan ikus daitezkeenak: kotxetegiak, tailer mekanikoa eta hiri garraioak. Protagonistak trenak edo horiei lotutako materialak diren arren, beste ibilgailu gutxi batzuk ere badira ikusgai, eta horiek hiri garraioen sailean daude. Esaterako, honako argazki honetan Donostiako Igeldo auzoko 73. zenbakidun trolebusa ikus daiteke. British United Traction enpresa izan zen hura eraiki zuena, eta trolebus horien historia dute jasota museoan.



ERLOJUA

Honako erloju hau 1908an egindakoa da, eta Bilbo eta Lezama arteko (Bizkaia) trenbidean kokatuta dagoen Sondikako geltokitik berreskuratutakoa da. Ez da museoan gordetako erloju bakarra. Azpeitiko geltoki zaharreko eraikin nagusiaren lehenengo solairuan, ikusgai dago XIX. mendearen amaieratik Espainiako abiadura handiko trenaren sorrera arte trenbideetako langileek erabili izan zituzten uniformearen erakusketa. Bigarren solairuan, aldiz, tren geltokietako ordularien erakusketa dago, baina bata zein bestea ezin dira bisitatu gaur-gaurkoz, pandemiaren ondorioz hartutako segurtasun neurriak tarteko.



ANTZINAKOAK, BERTAN
Museoaren kanpoaldean, edonork ikusteko eran, hainbat gailu daude. Esaterako, Euzkadi lokomotorea (argazkikoa), Maite lurrunezko tren makina, lurrunezko garabia, automotore elektrikoa, Aurrera lokomotorea...



MAKINERIAREN KONPLEXUTASUNA

Euskal Herriko makina-erremintaren esparruko bildumarik aberatsenetakoa eskaintzen du museoak, Urolako Trenbidearen lantegi mekaniko zaharraren bidez. 1925ean inauguratu zen bezalaxe mantentzen da gaur egun instalazioa; bertan dagoen motor elektriko zaharrak hamasei makina jartzen ditu martxan, txirrika, uhal eta barra kolektore ugariako sistema konplexu baten bitartez.

**TAILERRA, LEHENGO ERAN**

Mimoz eta detailez detaile daude zainduta museoko txoko guztiak. Kotxetegieng zonaldetik hasita, dena dago antzinako apaingarriz jantzita, eta bisitaria garai hartan barrena murgiltzen laguntzen dute. Baina bada txoko bat bereziki zaindua; tailerra, hain zuzen ere. Bertan, garai hartan erabiltzen zituzten tresnak-eta daude ikusgai. Argazki honetan, esaterako, Urolako trenbideko daratulu edo taradro bertikal bat ikus daiteke, 1925ean Aurrerak (Sestao, Bizkaia) egindakoa.

**BESTE HAINBAT BITXIKERIA**

Museoak dituen ehunka metro karratuetan denetarik ikus daiteke: Burdinbidearen Euskal Museora egindako dohaintzak, urteetan zehar egindako erreplikak, tren zaharretako materiala, plakak, berreskuratutako makineria... Material ugari dago museoan, eta horiek ikusteko txoko aparta dute prestatuta museoa kudeatzen duten langileek. Irudi honetan ikus daitezke meatze bagoneta bat, eskuzko zubi garabia eta askotariko kartelak, besteak beste. ■■■

SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Kapitan Laxa

Adiskide txarra baino, hobe da bizi bakarrik... ", aditzen genuen kantatzen zutela trikitilariak, nahiz askoz geroago arte ez genien kasurik egin. Gaztearen laineza zer den. Orain, aldiz, Uztapideren gero eta beheragora heldu garenean, heltzen ari garenean, eta gaitz erdi, heltzen ari gara, zeren bat baino gehiago ez ezik, mordoia baino gehiago dira bizi bazterrean utzi ditugun adiskide eta lagunak. Trikitilariaren adiskide txarretik ere ez gutxi, hala eta ere. Eta delako adiskide txarra baino, hobe da bizi bakarrik, hura burutzar handi honetatik ezabatu, ikastolako garai joan urrutiko hartan arbela borratzen genuen abantada berean ezabatu ere, eta adiskide onarekin tarte batzuk ematen saiatzen gara orain, amorratuta. Arrabiatuta. Edo Donostian, Atotxa zaharreko tunelean egin zuten pintada handi indartsu hura: txakurrek arrabia daukate. Batzuen arrabiari, besteen txertoa. Guardia zibilen kontroletan inork bizi izandakoak biltzen ari zait adiskide izoztu bat. Berririk baldin baduzue, kontatu niri, faborez, haren liburuan ager daitezten. Nik, azkena, atzo bertan izan nuen azkeneko kontrola. Etxeratze aginduak eta herrialde mugak gagnetik

pasatu, edo azpitik, baina demofaxisten legearen barruan beti, geratu ninduten berdeek. Eta "nora zoaz?"... "Oraintxe jo behar zioat nik honi adarra!". Sartu mingaina haginaren artean, eta "estxedsaa!" nik. "Barkatu, nora esan duzu?". Nik, lehena berriz ere, mingaina haginaren artean orduan eta barrurago sartutago: "Estxedsaaa!". Entenditu dit, etxera noala, alegia, eta nortasun agiriaren zerbakia galdetu dit. Barrua behar du. Ez daki zer datorkion zaparradan: "Dzasszpi, bi, slau, shirus, szerroo..."...Esan dizkiot zerbaki batzuk, egiatan hasi eta gezurretan bukatuta, guardiainzibila ernegatzeko moduan, eta, behingoagatik, ni ez baina bera beldurtzea lortu dut kontrolean. "Aurrera, aurrera!", eta segitu dut neure bidean, jakinik etxean adiskide txarra ez baina ona, oso ona izango dudala zain. Kapitan Laxa. Adiskide ona baino, ez dago-eta ederragorik. ■

"ADISKIDE TXARRA BAINO, HOBE DA BIZI BAKARRIK...", ADITZEN GENUEN KANTATZEN ZUTELA TRIKITILARIEK

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Emozioz zotinka!

Lasterketa zoroan gabiltza batean eta bestean, helmuga guztietara iristeko presak eta beharrak ibilbideaz gozatzeko tarte gutxi ematen dizkigun honetan. Noiznahi jartzen gaitu dantzan sakelako telefonoak, buruan tesi bat osatzeko adina galdera eta kezka ditugu, eta ezin burutik kendu inprimagailu barruko iratxoak maiz adarra jotzen diguneko ideia. Lasai, denok izaten ditugu egun txarrak... "Non dauzkatz giltzak...? Akabo, giltzak atean jarrita utzi ditut eta!".

Ez dago zalantzarik, arnasa hartu eta inguruaz gozatzeko hartutako tarte horiek dira gehien betetzen gaituztenak: ateratzearen den adartxoak egunetik egunera egiten duen aldaketa, haur jaioberriaren lo gozoa, izozkiarekin kokotsa belztu zaionaren gozamina, emanaldi batera joan eta artistak bertaratutakoekin bat egiten duen une zirraragarria, ikasleek beren ibilbidean zehar emandako aurrerapausoek eragindako poza, lagunaren arteko begirada konplizeak...

Bizi ditzagun emozioak naturaltasunez, gaziak edo gozoak izan, denek dute eta irribarre baterako zirrikitua. Guztiak dira geureak, denak bereziak, hitzez deskriba ezin daitezkeen pozaren paradisu fiskalak. ■

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

AZPEITITIK ATERATAKO TALDE BIDAIAK



Batzuetan behar dugu
kanpora atera
eta salto bat egin
mundu zabalera
lagun arte ederrean
atzera aurrera
gozatu nahi duenak
holako aukera
hobe du etortzea
gurekin batera

